

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

509/2024 Foru Agindua, abenduaren 20koa, zeinaren bidez onesten baita 20F eredua, ikerketa eta garapen jarduerak, berrikuntza teknologikokoak, ikus-entzunezko obrak eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunak egiteko proiektuen finantzaketan parte hartzearen berri ematekoa.

Urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, 64 bis artikuluan ezartzen du ezen zerga horren zergadunek edo establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun direnek kenkariak aplikatu ahal izango dituztela zergaren kuota likidoan, ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzen badute. Artikulu horrek dioenez, kenkari horiek aplikatu ahal izateko, proiektuen finantzaketan parte hartzen duten zergadunek, finantzaketa kontratua formalizatzen den zergaldia amaitu baino lehen, komunikazio bat aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, erregelamenduz ezarriko den eran, eta komunikazio horri gutxienez agiri hauek erantsi: finantzaketa kontratua eta foru arau bereko 64. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den txosten arrazoitua, edo halakorik oraindik egin ez bada, hura eskatu izanaren frogagiria.

Xedapen normatibo hori garatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduak, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 35 ter artikuluan dio proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu behar duela komunikazio hori, eta harekin batera gutxienez urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 64 bis artikuluan ezarritako dokumentazioa erantsiko beharko duela.

Aipatutako 2/2014 Foru Arauaren 66 ter artikulua, bestalde, xedatzen du ezen sozietateen gaineko zergaren edo establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek parte hartzen badute beste zergadun batzuek egindako ikus-entzunezko obren edo arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan, kenkari bat aplikatu ahal izango dutela kuota likidoan. Horretarako, artikulua dio kenkaria aplikatu nahi duten zergadunek komunikazio bat helarazi behar diotela Zerga Administrazioari, finantzaketa kontratua eta obraren kultur izaera frogatzen duen ziurtagiria erantsita, eta ziurtagiri hori oraindik eman ez bada, orduan hura eskatu izanaren frogagiria erantsiko dela. Komunikazio hori erregelamenduz ezarriko den eran aurkeztuko da, kenkaria sortzen den zergaldia amaitu eta hurrengo hilabetearen gehienez ere.

2/2014 Foru Arauaren 66 ter artikuluan jasotakoa garatuta dator, erregelamendu mailan, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsita dagoen Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 37 sexies artikuluan, eta, horri dagokionez, artikulua horrek dio aipatutako komunikazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar dela.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 509/2024, de 20 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 20F, de comunicación de la participación en la financiación de proyectos de investigación y desarrollo e innovación tecnológica, y de obras audiovisuales y espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales.

El artículo 64 bis de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la aplicación por parte de contribuyentes de este impuesto o del impuesto sobre la renta de no residentes que operen con mediación de establecimiento permanente, que participen en la financiación de proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica, de deducciones de la cuota líquida del impuesto. Para la aplicación de las deducciones el citado artículo exige que las o los contribuyentes que participen en la financiación de los proyectos presenten, en los términos que reglamentariamente se establezcan, y a más tardar el mes siguiente a la finalización del periodo impositivo en que se formalice el contrato de financiación, una comunicación a la Administración tributaria, a la que se adjuntará, al menos, el contrato de financiación y el informe motivado a que se refiere el apartado 3 del artículo 64 de la misma norma foral, o, cuando aún no hubiera sido emitido, documentación acreditativa de su solicitud.

En desarrollo de dicha disposición normativa, el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, en su artículo 35 ter establece que la comunicación se presentará por la o el contribuyente que participa en la financiación del proyecto, y que dicha presentación se llevará a cabo a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, adjuntándose, como mínimo, la documentación establecida en el artículo 64 bis de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero.

El artículo 66 ter de la referida Norma Foral 2/2014 regula, por su parte, la aplicación de una deducción de la cuota líquida por las o los contribuyentes del impuesto sobre sociedades o del impuesto sobre la renta de no residentes que operen con mediación de establecimiento permanente, que participen en la financiación de obras audiovisuales y de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales realizadas por otros contribuyentes. Para ello, se exige que las o los contribuyentes que se acojan a dicha deducción presenten a la Administración tributaria, a través de una comunicación, el contrato de financiación y el certificado emitido que acredite el carácter cultural de la obra, o, cuando aún no hubiera sido concedido, documentación acreditativa de su solicitud. Esta comunicación se presentará en los términos que reglamentariamente se establezcan, y a más tardar, el mes siguiente a la finalización del periodo impositivo en que se genere la deducción.

Lo previsto en el citado artículo 66 ter Norma Foral 2/2014 se desarrolla a nivel reglamentario en el artículo 37 sexies del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, estableciendo a este respecto la presentación de la referida comunicación a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Azaldutakoa kontuan hartuta, foru agindu honen xedea da aipatu diren bi finantzaketa kasuetan aurkeztu behar den komunikazio eredua onestea eta hura aurkezteko modua arautzea.

Foru agindu hau ematen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak azken xedapeneta bigarrenen eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak azken xedapenetako lehenengoan jasotzen dituzten gaikuntzen babesean.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 20F eredua onestea.

Onetsita geratzen da 20F eredua, «Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzearen berri ematea / Ikus-entzunezko obrak eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunak egiteko proiektuen finantzaketan parte hartzearen berri ematea» izenekoa, foru agindu honetan eranskin gisa jasotzen dena.

2. artikulua. 20F eredua aurkeztera behartuak.

1. Sozietateen gaineko zergaren zergadunak eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun direnak egongo dira 20F eredua aurkeztera behartuta, baldin eta beren asmoa bada kuota likidoan aplikatzea ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzeagatik edo ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzeagatik aurreikusita dauden kenkariak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 64 bis eta 66 ter artikuluetan araututakoak, hurrenez hurren.

2. Finantzatzen duten proiektu edo produkzio bakoitzeko, zergadunek 20F eredu bana aurkeztu beharko dute.

3. artikulua. 20F ereduari erantsi beharreko dokumentazioa.

1. 20F eredua aurkezten bada Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 64 bis artikuluan aipatzen den komunikazioa egiteko, dokumentazio hau erantsiko zaio:

a) 64 bis artikuluko 3. apartatuan aipatzen den finantzaketa kontratua.

b) 64 bis artikuluko 2. apartatuko d) letran aipatzen den txosten arrazoitua, edo, halakorik oraindik egin ez bada, hura eskatu izanaren frogagiria.

2. 20F eredua aurkezten bada Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 66 ter artikuluan aipatzen den komunikazioa egiteko, dokumentazio hau erantsiko zaio:

a) 66 ter artikuluko 3. apartatuan aipatzen den finantzaketa kontratua.

b) Ikus-entzunezko lanaren edo zuzeneko ikuskizunaren kultur izaera frogatzen duen ziurtagiria, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 37 bis artikuluko 1. apartatuan eta 37 quinquies artikuluan aipatua, edo, hura oraindik eman ez bada, eskaera egin izanaren frogagiria.

4. artikulua. 20F eredua aurkezteko moduak.

1. 20F eredua internet bidez aurkeztuko da, Zergabidea plataformatik abiatuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duen ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduan jasotakoari jarraituz.

En consideración a lo expuesto, esta orden foral tiene por objeto aprobar el modelo de comunicación a presentar en los dos supuestos de financiación citados anteriormente, así como regular su forma de presentación.

La presente orden foral se dicta al amparo de las habilitaciones contenidas en la disposición final segunda de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades, y disposición final 1 de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación del modelo 20F.

Se aprueba el modelo 20F «Comunicación de participación en proyectos de investigación y desarrollo e innovación tecnológica / Comunicación de participación en la financiación de obras audiovisuales y de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales», cuyo contenido figura en el anexo de la presente orden foral.

Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 20F.

1. El modelo 20F deberá ser presentado por las y los contribuyentes del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes que operen con mediación de establecimiento permanente, que pretendan aplicar las deducciones de la cuota líquida del impuesto previstas en los artículos 64 bis y 66 ter de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que regulan, respectivamente, las deducciones aplicables por la participación en la financiación de proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica y de obras audiovisuales y de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales.

2. Las y los contribuyentes deberán presentar un modelo 20F por cada proyecto o producción que financien.

Artículo 3. Documentación a adjuntar al modelo 20F.

1. Cuando la presentación del modelo 20F tenga por objeto realizar la comunicación a la que se refiere el artículo 64 bis de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a la comunicación se adjuntará la siguiente documentación:

a) El contrato de financiación a que se refiere el apartado 3 de dicho artículo 64 bis.

b) El informe motivado a que se refiere la letra d) del apartado 2 de dicho artículo 64 bis o, cuando aún no hubiera sido emitido, documentación acreditativa de su solicitud.

2. Cuando la presentación del modelo 20F tenga por objeto realizar la comunicación a la que se refiere el artículo 66 ter de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a la comunicación se adjuntará la siguiente documentación:

a) El contrato de financiación a que se refiere el apartado 3 de dicho artículo 66 ter.

b) El certificado emitido que acredite el carácter cultural de la obra audiovisual o del espectáculo en vivo, a que se refieren, respectivamente, el apartado 1 del artículo 37 bis y el artículo 37 quinquies del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, o cuando aún no hubiera sido concedido, documentación acreditativa de su solicitud.

Artículo 4. Formas de presentación del modelo 20F.

1. El modelo 20F se presentará a través de Internet, desde la plataforma Zergabidea, con arreglo a lo previsto en Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

Aurkeztu beharreko eredua prestatzeko, Zergabidea plataformak berak eskatutako datuak bete beharko dira.

Zergabidea plataforma <https://zergabidea.gipuzkoa.eus> atarian dago eskuragarri. Era berean, nahi duena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik edo Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik ere sartu ahal izango da plataforma horretara.

2. Halaber, Zergabidea plataformak aukera emango du aurkezten den 20F ereduari aurreko 3. artikuluan aipatzen den dokumentazioa eransteko.

5. artikulua. 20F eredua aurkezteko epea.

20F eredua epe hauetan aurkeztuko da:

a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis artikuluan aipatzen diren ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzeari buruz bada, gehienez ere, finantzaketa kontratua formalizatzen den zergaldia amaitu eta hurrengo hilabetean.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66 ter artikuluan aipatzen diren ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzeari buruz bada, gehienez ere, kenkaria sortzen den zergaldia amaitu eta hurrengo hilabetean.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2024ko abenduaren 20a.—Itziar Agirre Berriotxoa, Departamentuko foru diputatua. (9593)

El modelo a presentar se confeccionará cumplimentando los datos requeridos al efecto por la propia plataforma Zergabidea.

La plataforma Zergabidea se encontrará disponible en el portal <https://zergabidea.gipuzkoa.eus>. Se podrá, así mismo, acceder a dicha plataforma desde la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa o desde la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas.

2. Asimismo, la plataforma Zergabidea permitirá adjuntar al modelo 20F que se presente, la documentación a que se refiere el artículo 3 anterior.

Artículo 5. Plazo de presentación del modelo 20F.

El modelo 20F se presentará en el plazo que se relación a continuación:

a) En el caso de la participación en proyectos de investigación y desarrollo e innovación tecnológica a que se refiere el artículo 64 bis de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, a más tardar, el mes siguiente a la finalización del periodo impositivo en que se formalice el contrato de financiación.

b) En el caso de la participación en la financiación de obras audiovisuales y de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales a que se refiere el artículo 66 ter de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, a más tardar, el mes siguiente a la finalización del periodo impositivo en que se genere la deducción.

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente orden foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 20 de diciembre de 2024.—La diputada foral del Departamento, Itziar Agirre Berriotxoa. (9593)

ERANSKINA

ANEXO

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza
Departamentua

Diputación Foral
de Gipuzkoa

Departamento de
Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna

20F

IKERKETA ETA GARAPENeko ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO PROIEKTUEN FINANTZAKETAN PARTE HARTZEAREN JAKINARAZPENA / COMUNICACION DE PARTICIPACION EN LA FINANCIACIÓN DE PROYECTOS DE INVESTIGACION Y DESARROLLO E INNOVACION TECNOLÓGICA

IKUS-ENTZUNEZKO LANEN ETA ARTE ESZENIKO ETA MUSIKALEN ZUZENEKO IKUSKIZUNEN FINANTZAKETAN PARTE HARTZEAREN JAKINARAZPENA / COMUNICACION DE PARTICIPACION EN LA FINANCIACION DE OBRAS AUDIOVISUALES Y DE ESPECTACULOS EN VIVO DE ARTES ESCENICAS Y MUSICALES

Ekitaldia / Ejercicio

Entitate aitortzailearen identifikazioa (finantzatzailea) / Identificación de la entidad declarante (financiadora)

IFZ / NIF	Sozietatearen izena / Razón social
Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren 64bis artikulua arabera, entitateak jakinarazten du jarraian zehazten den ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzen duela, eta proiektu horrek Foru arau horren 62. artikulutik 64.era bitartekoetan ezarritako baldintzak betetzen dituela. De acuerdo con el artículo 64bis de la Norma Foral 2/2014, del Impuesto sobre Sociedades, la entidad comunica que participa en la financiación del proyecto de investigación, desarrollo o innovación tecnológica que a continuación se detalla, el cual cumple los requisitos establecidos en los artículos 62 a 64 de dicha Norma Foral Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren 66ter artikulua arabera, entitateak jakinarazten du jarraian zehazten den ikus-entzunezko lanen eta arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzen duela, eta horiek foru-arau horren 66bis artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztela. De acuerdo con el artículo 66ter de la Norma Foral 2/2014, del Impuesto sobre Sociedades, la entidad comunica que participa en la financiación de las obras audiovisuales y de los espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales que a continuación se detallan, los cuales cumplen los requisitos establecidos en el artículo 66bis de dicha Norma Foral.	

I+G+b proiektua garatzen duen entitatea/ Obra edo ikuskizuna ekoizten duen entitatea

Entidad que desarrolla el proyecto de I+D+i / Entidad productora de la obra o el espectáculo

IFZ / NIF	Sozietatearen izena / Razón Social	Probintzia / Provincia	Probintzia kodea / Código provincia
Helbide elektronikoa / Correo electrónico		Telefonoa / Teléfono	

I+G+b finantziatutako proiektuaren informazioa / Información del proyecto de I+D+i financiado

2/2014 Foru Arauaren 62. eta 63. artikuluen 2. apartatuan eskatutako baldintza zientifikoak eta teknologikoak betetzeari arrazoitua eskatu den eguna (2/2014 FAREN 64.3 artikulua)	2/2014 Foru Arauaren 62. eta 63. artikuluen 2. apartatuan eskatutako baldintza zientifiko eta teknologikoak betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiriaren espediente zenbakia (2/2014 Foru Arauaren 64.3 artikulua)
Fecha de solicitud del certificado motivado relativo al cumplimiento de los requisitos científicos y tecnológicos exigidos en el apartado 2 de los artículos 62 y 63 de la NF 2/2014 (artículo 64.3 NF 2/2014)	Nº de expediente del certificado que acredite el cumplimiento de los requisitos científicos y tecnológicos exigidos en el apartado 2 de los artículos 62 y 63 de la NF 2/2014 (artículo 64.3 NF 2/2014)
Deskribapena / Descripción	
Finantzaketa kontratuaren data / Fecha del contrato de financiación	
Aurrekontu osoaren zenbatekoa / Importe del presupuesto total	
Finantzaketan parte hartzen duen zergadunak jarritako zenbatekoa / Cantidad que aporta el contribuyente que participa en la financiación	

Finantziatutako obra edo ikuskizunaren informazioa / Información de la obra o espectáculo financiado

Obra edo zuzeneko ikuskizuna kulturala dela egiaztatzen duen ziurtagiriaren eskaera-data (17/2015 Foru Dekretuaren 37 bis artikulua eta quinquies)	Obra edo zuzeneko ikuskizuna kulturala dela egiaztatzen duen ziurtagiriaren zenbakia (17/2015 Foru Dekretuaren 37 bis artikulua eta quinquies)
Fecha de solicitud del certificado que acredite el carácter cultural de la obra o del espectáculo en vivo (artículo 37 bis y quinquies del Decreto Foral 17/2015)	Nº de certificado que acredite el carácter cultural de la obra o del espectáculo en vivo (artículo 37 bis y quinquies del Decreto Foral 17/2015)
Titulua / Título	
Finantzaketa kontratuaren data / Fecha del contrato de financiación	
Aurrekontu osoaren zenbatekoa / Importe del presupuesto total	
Finantzaketan parte hartzen duen zergadunak jarritako zenbatekoa / Cantidad que aporta el contribuyente que participa en la financiación	